

# INFANTIL · HAURRENTZAT



II. Diana Fivado

Además de relatos, cómics o libros informativos, la biblioteca ofrece otra interesante y variada colección de lecturas: las revistas y periódicos.

Si lo tuyo es curiosear, hojear, informarte o estar al día sobre alguna afición concreta, no te pierdas estas publicaciones... ¡seguro que encuentras una ideal para ti!

Kontakizun, komiki edo informazio liburuez gainera, beste irakurketa bilduma askotariko eta interesgarri bat ere eskaintzen du liburutegiak: aldizkariez eta egunkariez ari gara.

Ikusmiran ibiltzea, orri-pasa jardutea, informazioa biltzea edo zaletasun jakinen batean eguneratuta egotea gustatzen bazaizu... aurkituko duzu zuretzat egoki-egokia den bat, zalantzarik ez izan!

# NOTICIAS A TODA PÁGINA . ORRIALDE OSOKO ALBISTEAK

## PRIMICIAS NEWS (8-12)

Primicias News (quincenal . hamabostekaria)



Si quieres informarte sobre los últimos acontecimientos nacionales e internacionales pero la prensa adulta no te termina de convencer, aquí tienes un periódico que te cuenta la actualidad con claridad y rigor. “Primicias News” se publica en formato bilingüe (inglés-español) y te ayuda a entender mejor los temas que te interesan (política, ciencia, deportes, libros...) y a formarte tus propias opiniones.

Nazioko zein nazioarteko azken gertakizunen berri jaso nahi baduzu, baina helduentzako prentsa ez bazaizu askorik gustatzen, hementxe duzu gaurkotasunaren berri argi eta zorrotz emango dizun egunkaria. “Primicias News” bi hizkuntzatan argitaratzen da (ingelesez eta gaztelaniaz), eta lagungarria izango zaizu interesekoak dituzun gaiak hobeto ulertzeko (politika, zientzia, kirolak, liburuak...), bai eta zeure iritziak osatzeko ere.

## MANTAGORRI. GAZTETXOEN ASTEKARIA (6-12)

Euskal Editorea (semanal . astekaria)




Este suplemento infantil, que acompaña cada sábado al periódico Berria, es una publicación en euskera que incluye noticias cercanas, reportajes y pasatiempos. También encontraréis en ella algunas curiosidades y recomendaciones de lectura, así como chistes y tiras de cómic.

Haurrentzako gehigarri hau Berria egunkariarekin iristen da etxera larunbatero. Euskarazko argitalpen bat da, eta hurbileko albisteak, erreportajeak eta denbora-pasak biltzen ditu. Hainbat bitxikeria eta irakurketa gomendio aurkituko dituzu bertan, eta baita txistek zein komikiak ere.

# TXIKI REVISTAS . TXIKIENTZAKO ALDIZKARIAK

## POPI (0-3)

Bayard (mensual . hilabetekaria)



¿Aún no sabes leer? Eso no importa. Esta revista está pensada para ti: tiene personajes divertidos y tiernos, fotografías de lugares cercanos, ilustraciones sencillas.... ¡hasta algún pictograma! Te gustará compartirla y reconocer objetos, lugares y situaciones. Ya verás cuántas palabras nuevas descubres a través de sus imágenes.

Oraindik ez dakizula irakurtzen? Ez dio axola. Zuretzat pentsatutako aldizkaria da hau: pertsonaia dibertigarri eta maitekorrak ageri dira, hurbileko tokien argazkiak, irudi soilak... baita piktogramaren bat edo beste ere! Izugarri gustatuko zaizu aldizkaria partekatzea, eta objektuak, tokiak eta egoerak ezagutzea. Ikusiko duzu zenbat hitz berri ikasiko dituzun irudien bitartez.

## CARACOLA (4-6)

Bayard (mensual . hilabetekaria)



Si estás aprendiendo a leer, o sabes hacerlo desde hace un tiempo, “Caracola” es tu revista. Cada número está lleno de sorpresas: juegos, manualidades, páginas para colorear, historias y reportajes de naturaleza. También hay curiosidades y algunas explicaciones sobre muchos temas de la vida.

Irakurtzen ikasten ari bazara, edo duela gutxi ikasi baduzu, “Caracola” da zuretzat egokia den aldizkaria. Ale bakoitza ustekabe atseginez beterik dago: jolasak, eskulanak, margotzeko orrialdeak, istorioak eta naturari buruzko erreportajeak. Horretaz gainera, bizitzako gai ugari buruzko azalpenak eta bitxikeriak ere biltzen ditu.

# PERIODISMO A TODA LETRA . LETRA BETEKO KAZETARITZA

## LEO LEO (7-10)

Bayard (mensual . hilabetekaria)



Una revista imprescindible para amantes de los relatos. Cada número incluye un cuento realizado por los mejores ilustradores y escritores, además de cómics, juegos de ingenio, reportajes, enigmas, imágenes o datos sorprendentes e incluso trucos de magia. Si eres de los que no tienen miedo a las letras, en esta revista encontrarás miles de tesoros.

Kontakizunak gogoko dituztenentzat nahitaezko aldizkaria da. Ale bakoitzak ilustratzaile eta idazle onenek osatutako ipuin bat dakar, baita komikiak, asmamen jokoak, erreportajeak, igarkizunak, irudi zein datu harrigarriak eta magia trikimailuak ere. Letrei inolako beldurrik ez badiezu, milaka altxor aurkituko dituzu aldizkari honetan.

## REPORTERO DOC (9-12)

Bayard (mensual . hilabetekaria)



Una publicación ilustrada con temas y contenidos muy variados: ciencia, naturaleza, historia, universo, pasatiempos... Incluye páginas a todo color, abundantes fotografías y un formato que la hace divertida y fácil de leer.

Argitalpen ilustratua, askotariko gaiak eta edukiak biltzen dituena: zientzia, natura, historia, unibertsoa, denborapasak... Kolore biziko orriak ditu, ezin konta ahala argazki, eta aldizkaria dibertigarria eta irakurterraza izan dadin lortzen duen formatua.

# PERIODISMO A TODA LETRA . LETRA BETEKO KAZETARITZA

## LA LECHE (8-12)

La Leche (trimestral . hiruhilabetekaria)

2017 - 2020 (nº 4 - 16)




¡Esta revista es la leche!, está escrita con humor, con un diseño muy original y trata todo tipo de temas de un modo atrevido y provocador. En la portada se presenta como “revista para los que cantan en la ducha”, pero la puedes leer aunque no te guste cantar (ni ducharte): plantea retos, hace experimentos, cuenta historias (reales y de ficción)... Quizás te parezca algo rara, pero seguro que con ella no te aburrirás.

¡Esta revista es la leche! aldizkaria umorez josita dago, oso diseinu originala dauka, eta modu ausart eta probokatzailean lantzen ditu era guztietako gaiak. Azalean, “dutxan abesten dutenentzako aldizkaria” hitzekin deskribatuta ageri da, baina abestea gustatu ez arren (ezta dutxatzea ere) irakurtzeko modukoa da: erronkak proposatzen ditu, esperimentuak egiten ditu, istorioak kontatzen ditu (errealak zein fikziozkoak)... Arraro samarra irudituko zaizu agian, baina seguru ez zarela batere aspertuko.

# NATURALEZA Y CIENCIA . NATURA ETA ZIENTZIA

## EL CÁRABO (8-12)

Editorial SIA. Servicios informativos ambientales (trimestral . hiruhilabetekaria)  
2009 - 2021 (nº 71 - 91)



Una publicación sobre animales y plantas ilustrada con unos geniales dibujos. Su creador, Pierre Déom —un profesor francés experto en naturaleza— es, además de un artista con la plumilla, un escritor ameno y divertido. El resultado es una revista atractiva que te ayudará a conocer la naturaleza. Contiene además ideas prácticas para que puedas aprender y experimentar personalmente.

Animaliei eta landareei buruzko argitalpen bat, izugarri onak diren marrazkiekin ilustratutakoa. Aldizkariaren sortzailea, Pierre Déom —frantziar irakaslea, naturan aditua—, lumarekin artista izateaz gainera, idazle atsegin eta dibertigarria ere bada. Artista horrek egindako lanaren emaitza aldizkari erakargarri bat da, natura ezagutzen lagunduko dizuna. Gainera, ideia praktikoak ere biltzen ditu, zeure kasa ikas eta esperimanta dezazun.

## PRINCIPIA KIDS (6-12)

Sr. Brightside (semestral . seihilabetekaria)  
2017 (Temporada 2 / Episodios 1 y 2)



Una revista científica de lo más divertida... A través de relatos, juegos y sencillos reportajes, descubrirás todo lo que siempre has querido saber sobre el mundo, los inventos y la ciencia. Es, por tanto, una publicación para gente curiosa. Y las ilustraciones, muy artísticas y llenas de humor, consiguen que todas las explicaciones resulten muy atractivas.

Denik eta zientzia aldizkaririk dibertigarriena... Kontakizunak, jolasak eta erreportaje samurrak baliatuz, munduari, asmakizunei eta zientziari buruz beti jakin nahi izan duzuna ezagutzen lagunduko dizu. Horrenbestez, jakin-nahi handiko pertsonentzako argitalpen aproposa da. Ilustrazioak oso artistikoak dira, umorez josiak, eta horiei esker, oso erakargarriak izaten dira azalpen guztiak.

# LEARNING ENGLISH . LEARNING ENGLISH

## I LOVE ENGLISH JUNIOR (6-10)

Bayard (bimestral . bihilabetekaria)



Si tienes un nivel básico de inglés, esta revista te ayudará a avanzar de forma divertida, a través de temas muy interesantes y de imágenes llamativas. Con cada ejemplar, se ofrece un CD audio con la grabación íntegra de la revista.

Oinarrizko ingeles maila baduzu, aldizkari honek asko lagunduko dizu modu dibertigarrian aurrerapausoak ematen; zehazki, zinez gai interesgarrien eta irudi deigarrien bitartez. Ale bakoitzarekin CD audio bat eskaintzen da, aldizkaria oso-osorik grabatuta dakarrena.

## I LOVE ENGLISH (10-12)

Bayard (mensual . hilabetekaria)



Si ya sabes inglés, “I Love English” es una revista entretenida que te puede ayudar a practicar y a mejorar tu nivel. Además, ofrece mucha información de actualidad sobre temas culturales (cine, música) y sociales (viajes, fiestas...). Cada número incluye un cuadernillo de vocabulario inglés-español y un CD para mejorar la pronunciación.

Dagoeneko ingelesez hitz egiten baldin badakizu, “I Love English” da zuretzat egokia den aldizkari entretenigarria, zure maila praktikatzeko eta hobetzen lagun baitiezazuke. Gainera, gaurkotasuneko informazio ugari biltzen du, kultur gaiei (zinema, musika...) zein gizarte gaiei (bidaiak, jaiak...) buruzkoa. Ale bakoitzarekin ingelesez/gaztelaniaz hiztegia biltzen duen koaderno txiki bat dator, baita CD bat ere, ahoskerara hobetzeko.




# LEARNING ENGLISH . LEARNING ENGLISH

## **ANORAK MAGAZINE (6-12)**

Studio Anorak (trimestral . hiruhilabetekaria)

2016 -2017 (nº 39 - 44)



Revista independiente en inglés para niñas/os con un diseño llamativo y una perspectiva inteligente, diferente y de calidad. Contiene ideas inspiradoras, páginas para colorear, pasatiempos y decenas de actividades.

Ingelesezko aldizkari independentea diseinu deigarria eta ikuspegi adimentsua, desberdina eta kalitatezkoa eskaintzen dituena. Ideia inspiratzaileak, koloreztatzeko orriak, denbora-pasak eta dozenaka jardura biltzen ditu.

# EDUCACIÓN FAMILIAR . FAMILIA HEZKUNTZA

La biblioteca no solo tiene prensa infantil. En la estantería de “fondo familiar” hay revistas que pueden interesar a las personas adultas de tu casa:

Liburutegiak, baina, ez du soilik haurrentzako prentsa. “Familia funtsaren” apalategian, esaterako, zure etxeko helduei interesa dakizkiekeen aldizkariak daude:

## SER PADRES

G+J España (mensual . hilabetekaria)



Esta revista incluye colaboraciones de especialistas en medicina, nutrición, puericultura, psicología y pedagogía. Ofrece muchas informaciones y consejos variados sobre la crianza y la educación.

Aldizkari honek hainbat gaitan espezialistak diren pertsonen kolaborazioak biltzen ditu; hala nola medikuntza, nutrizioa, haurtzaintza, psikologia eta pedagogia gaitetan. Hazkuntzari eta hezkuntzari buruzko askotariko aholkuak eta informazioa eskaintzen du.

## CALCO. LITERATURA INFANTIL Y JUVENIL

Equipo Fira-Pamplona . Fira Taldea-Iruñea (anual . urtekaria)



Una publicación que selecciona los mejores libros infantiles y juveniles del año. Sus páginas recogen muchas recomendaciones de profes, librerías y de otras personas expertas.

Urteko haur eta gazteentzako libururik onenak hautatzen dituen argitalpena. Bere orrialdeetan, irakasleek, liburu saltzaileek eta adituak diren beste pertsona batzuek emandako ezin konta ahala aholku biltzen dira.

# EDUCACIÓN FAMILIAR . FAMILIA HEZKUNTZA

## HAZI HEZI

Xangorin (trimestral . hiruhilabetekaria)



Revista euskaldun sobre educación y crianza. Una herramienta muy útil para la educación y el desarrollo integral de los niños/as.

Hezkuntzari eta hazkuntzari buruzko aldizkari euskalduna. Oso tresna baliagarria haurren hezkuntzarako eta garapen integralerako.

[www.bibliotecaspublicas.es/civican](http://www.bibliotecaspublicas.es/civican)  
[CivicanLib.blogspot.com](http://CivicanLib.blogspot.com)